

Txillardegi metafisikaz bestaldetik

Txillardegik aldizkari hau kaleratu aurretik argitaratu zuen «Haizeaz bestaldetik» nobela. Hori zela eta ez genion aipamenik egin, nolarebait haren arrakasta informatiboak gaurkotasuna galdu zuelakoan edo. Baina gero kontaratu garenez Txillardegiren nobela nahiko isilik pasa da tamalez. Eta isiltasun hori, desaperzibiturik pasatze hori notizi ditugu. Hauxe da arrazoa gaur **Lurdes Oñederraren** kritika plazaratzeko.

«Haizeaz bestaldetik» nobela metafisiko bat da, abstrazio egoera espiritualen inguruan biraka dabilen narrazioa. Zeren narrazio den jakiteko ordea, ez gaitezke abstrakzio hoietatik aldentu. Alde batetik, argumetoak berak — argumetorik bada— ez du nobelan zehar tratamendu oso baten autonomiarik. Beste aldetik, abstrakzio hoiek argumetoa egiten dute, pertsonai batek egingo lukeen maila berean.

Uka ezinezkoa da noski, azalean bederen, badirela oinarri material batzu. Zer kontatzen zaigun konkretatzeko lehen saioan, protagonistanarradore-pertsonai bakarra denaren (edo hiru retatik bat ere ez denaren) bidaiata dorkiguburura, bidai kosmikoko edo esperientzi mistikoa. Eta bidai horren bidez zenbait gogoeta, oroi-men eta sensazio agertzen zaizkigu. Egia da liburu hau kontatzeko baino gehiago esateko egin dagoenaren susmoa hasera-haseratik hartzen dugula, hala ere, tesi osoaren eta tesi hori gauzatzen duten elementuen jabe egitea nobela aurrera doalarik bakarrik lortzen dugu. Hain zuzen ere, boskarren atalarekin sartzen gara beldurrik gabe identifikatuzakegun mundu batetan. Atal honek, flash-back

erara, lehenengo pertsona hizketan ari zaigunaren haurtzarora garamatza, gero gaztarora eta kronologikoki narradorearen orainera eta beste bi atalak horitik aurrera joko dute.

Azkeneko hiru atal haue-tan nolabait, aurrekoetan aipatu besterik egiten ez diren zenbait punturen explikazioa ematen zaigu. Hau da, bidaiata kontatzerakoan sinbolo pisua zutenek narradorearen bizitzan duten erroa non datzan dakigu. Maila sinbolikoa eta erreala sinpleki daude elkarrekin lotuta, oso garbi azaltzen da behintzat lokera. Hitzek ere ez dute irakurlea bakarrik uzten eta bi mailatan espresio berdina erabiltzen da —«goiz geldi epel hartan» (65,164).

Boskarren kapitulora iritsi artean dago arriskua, zalantza barrena errotzeko arriskua, alegia. Batez ere lehenengo kapitulu-tan ez bait zaigu ezer kontatzen. Inongo egiantzekotasunik ez duen hididura geografikoan zehar, euskaldunoi arrunt egiten zaizkigun izenen artean —«Muitza» (31), «Txubillo» (33), «Tximistarrri» (34)—, hor dabil amets giroan espiritu galdu bat, «gogoeta hari» bat. Bera da kapitulu amaigabeetan, hitzen isurian, mintzatzen zaiguna; indar arrotz batek bultzaturik, izate izkutuekiko elkarriketa labor eta ilunen bidez, bere noiz eta nonaren deskribapen barrokoen bidez, literatur eginik.

Ritmoaren egunkari ageria

Horrela, ubikazio huts izan zitekeenak beste kategori bat hartzen du, non geografiko konkretoa, ematen zaion tratamendua de la medio, non kosmikoko bihurtzen zaigu: «txirrita harrian irakurri nuen» (31), «Itsasaldetik zetorkidan ahots harrigarritan» (51). Polliki, liburuan hezkor den argitasun batetaz, zer adierazi nahi zaigun ikasten dugu.

Narradoreak berak ulertzen duen neurrian, bigarren pertsona irakasten zaiona aitortzen zaigu: mugak, «lakua», aukeratu dituen gizonarentzat «itsasoa» erdiesteko beranduegi deneko une latza.

Gogoetak dira lehenengo pertsona mintzatzen zaigun korapiloa —pertsonaia?— osatzen dutenak. Besteak, aurkitzen dituen fraileak, bere oroimenetan azaltzen direnak, bidaitik bueltan aurkitzen dituenak, fantasmak dira —geografia bezalaxe— gogoeten desarrola-leku. Denbora ere, denbora kosmikoko egin zaigu, noiza eta nona batu egiten zaizkigu, «Bihurbiderik aurkitu ez zaion bazter hits bizigabearen atarian nengoen» (37)

Eta gauzak kontatzeko hain aldakorra den ritmoa (kanpai hotsa (74) eta zazpi egun (58) parez pare), hitzen ritmo estetikorako bagazkio, geldia da oso. Ez da bakana liburuan bost bat adjetibo elkarren atzetik. Gainera, lexikoaren aberastasuna, sinboloen erabilkera, hizkuntz arrotzak, hitzei emandako garrantzia («udazkena nahi ez, udazkenik nahi ez, hobe»-68) direla eta, astun eta maiz ulergaitz egiten zaigu nobela.

Hortxe dago liburuaren zailtasuna batez ere, metafisika urrun baten adierazpen formalean. Erabat mugagabe eta subjektibo denaren espresio mugatu eta kolektiboan, hizkuntzan, askotan hotsen bultzadaz poesi eta besteena edo propioa den poema osora ere iritsiz. Batzuetan ordea, hitzen indartzeari ematen zaiona, «bake baketsua» (23), agian muinarekiko luzeegi edo landu gabea gerta daitekeen estiloari kentzen zaio eta baldar aurkitzen dugu. Gorenoko gogaetetan erabilitako konparaketa, «hegazkina», «leihatila borobila» (35)... eta hemen, noraino den nobelistak landu behar duena eta norainokoa kaleak eman behar diona hizkuntzari.

Lurdes Oñederra.